

SORGINA MONSTRUO BIHURTUTA

Anton Erkorekak Mundakan bildutako kondaira zaharra

Udagoienean ardi bi utzi zizkion Katillotxuko atsoari neguan jan zitzan. Eta bere etxera joan behar zuela eta, baserritarrak beti presaz, esan zion:

- Domingo! Ez igo etxera orain gero!, gibela jan arte.

Iluntzean itzuli zen, bere ardiak hilda utzita eta ez joateko esan arren.

- Etxera itzuli behar dut! –esan zuen baserritarrak.

- Domingo! Etxera bazoaz ez zara ondo ibiliko gero! –atsoak erantzun.

Iluntzean edo gaua sartuta zegoenean badator etxera neure aita defuntua (*Landara*) –Erkorekaren berriemailearen familiari gertatutakoa da eta hemen etxe ondoan gainera, *Altxurreko* zarratuetan bertan, etxetik berberton heldu ei zion.

- Zer arraio egiten ari zara!

- Giputze zen eta.

- Zer arraio egiten duzu hemen neskatila!

Pizti batek heldu zion hanka artetik eta gau osoan eraman zuen.

Azkenean, oilarrak jo zuenean goizeko bostetan, Tribisko harrobian bere burua ikusi zuen.

Eta baraurik, bidea oso ezagun zuen lekutik, hantxe. Sasitza eta otadi artean gau osoan ibili zen pizti baten lepoan, eta hantxe utzi goizeko bostak inguruan.



Katillotxu mendia.

Anton Erkoreka
Etnografía de Bermeo, 3
Leyendas, cuentos y supersticiones
Doniene Bilduma
Bilbao, 2000